Sorhouet Maurice
Correspondant
Saint-Esteben.

St-Esteben. le 24 Juin 1961.

Monsieur le Rédacteur.

Je vous prie de bien vouloir faire paraître l'article ci-joint *in-extenso*, sur le Herria du 29 Juin prochain.

Avec mes meilleurs remerciements, je vous prie d'agréer, Monsieur le Rédacteur, mes salutations les plus distinguées.

M. Sorhouet

ere eskapatzen zautzu.

Aithortzen dautzut badut espantu bainan ohartzen gira zuk ez duzula biziki, zeren pochi bat bazinue ez zindazke beldur agertzeko. Zeren beldurra othe duzu? Badakigu bai ez direla denak aiphatu behar!! Hortakotz ager gostuan, hastean erran dautzutan bezela mintza gaiten bekhoz bekho. Ez girea biak ere, Kontseilu bat bezen segur, etsenplu ona eman behar dugun gizonak?

Erraiten dautazu gure biden egiteko aldia ebatsi dugula. Hori ez da halere ohointza itsusia. Eta hortan ez dugu batere Konzientziarik kargatu zeren bertzek zombat aldiz ez zaukuten guri ebatsia!?! Bertze egia bat ere erraiten duzu! Dirua balinbada zer nahi egiten da eta harekin ez da apailu edo numbero beharrik, nahikari pochi bat ukhanez. gero Bainan sos debru horiek emaiten

# Donoztiri (et non Donestiri).

## Alegiazko Ganichi errepostu.

Bichtan da bere izena gordez mintzo den gizonak, egia eta gezur, zer nahi erran dezala eta ez duela balio horren erranez den guttieneko kasurik egitea. Irakurtzaleek ere ez dute orai horren erranez kasu egiten zeren gordezkako molde hits hortan ageri baitu ez dela chuchen eta bethi solas beretan asetzen da jendia. — Hortakotz Ganich edo Chimun alegiazkoa, zure izen egiazkoa agertzen duzuncan nik bezela, mintzatuko gira nahi duzun ekhei guziez. Denek badakigu ez duzula gure bidetan, chaharretan edo erietan zure mina. Ager beraz zuk ere zure burua eta khanbia orai sujetez mintzatu berdin gure lanez, arroaz, zuhaiez, arnoaz eta berdin urez eta esneaz.

Gezur handien erraitea ez omen da bekhatu. Beraz abian absoluzionia dukezu. Bainan erranaren bortchaz egia zonbeit ere eskapatzen zautzu.

Aithortzen dautzut badut espantu bainan ohartzen gira zuk ez duzula biziki, zeren pochi bat bazinu ez zindazke beldur agertzeko. Zeren beldurra othe duzu? Badakigu bai ez direla denak aiphatu behar!! Hortakotz ager gostuan, hastean erran dautzutan bezela mintza gaiten bekhoz bekho. Ez girea biak ere, kontseilu bat bezen segur, etsenplu ona eman behar dugun gizonak?

Erraiten dautazu gure biden egiteko aldia ebatsi dugula. Hori ez da halere ohointza itsusia. Eta hortan ez dugu batere kontzientziarik kargatu zeren bertzek zonbat aldiz ez zaukuten guri ebatsia!?! Bertze egia bat ere erraiten duzu! Dirua balinbada zer nahi egiten da eta harekin ez da apailu edo numbero beharrik, nahikari pochi bat ukhanez gero. Bainan sos debru horiek emaiten

ditu lanak eta zuk ere hik bezela segur naiz horren biltzeko laguntza zerbeit gogotik har zeniola zeren, biek ere, bakhotchak gure herrietan zer beharrak ez ditugu batere bertzez okupatu gabe.

Egia duzu ere bigarren galdea gure haurrentzat 180.000 libera zela. Bainan hori juanden urthatsetik eta ekheinaren undar artino, 6 hilabete horientzat. Zombat heldu othe da urthe guziarentzat? Haste hastetik erran daukute zerbitzu horren phartenik handiena gobernuak pagatuko zuela eta menturaz bertze gaineratiko pharte ttippia herrier galdatua izanen zela. Abian erran nien horren baimena, hik segurik kontseiluari galdatuko nuela. Denek untsa hartu zuten! Zer erraiten ahal zen? Zertako litazke 11 edo 13 gizon denak batek egiten ahal balitu? Denak utzi ditut libro. Horiek zuzenaren kontra zen gauza hori ez on hartu. Bakhotchak bere herrian badaki zer duen egiteko.

Galdatzen dautazu zer egin behar ginukeen beste herrietan dabiltzan haurrentzat. Horier ere bideko presak pagatu Hazparneckoer bezela! Diozu ez daitezkela elgarri konpara. Bainan hik herriko haur guziak berdin estimatzen ditut eta badakit batzuentzat laguntza heldu denean bertzek ere segur ukhanen dutela.

Tokia banu mintza nindazke ~~esko~~ eskola batzuetarik hegaldakatzen diren alkhi edo mahainl berri batzuez. Bainan gordezka mintzo direner ez zaut balio gehiago errepusturik emaitea. Uzten dut ere lekhua alegiazko Ganich bezela, arpiz, horren molde hits hortan gudaikatu nahi dutener, nahi duten moldean, eskuaraz ala erdaraz, gisa bat edo bertzez, hitzez eta airez, iduritzen zakoten ekheia hautatuz.

Sorhouet Maurice
Maire
Saint-Esteben.